



TOLOSAKO
UDALA

UDAL AURREKONTU PARTEHARTZAILEAK 2022

- Foku ideien inguruko txostena -

Parte-hartze prozesuaren oinarrizko datuak

Nori zuzendua : Tolosako herritarrei

Antolatzailea: Tolosako Udala. Komunitatea eta Gobernantza.

Zer eta nola egingo dugu

Parte hartzea eta zeharkakotasuna txertatuz, **udal aurrekontu ofizialak lantzeko prozeduran** "aurrekontu parte hartzaileak" izeneko **partehartze prozesuaren emaitzak txertatuko dira.**

Horretarako:

1. **Udal gobernuak**, oposizioak eta teknikariek foku-ideiek **lehenengo lanketa** egingo dute.
2. Ondoren irekiera fasea dator. **Herritarrekin lanketa**, ekarpenak jasotzea eta aberastea.
3. Ondoren dagozkion **txostenak** egingo dira, eta **saio sektorialetan** proposamen zehatzak landuko dira.
4. Amaitzeko parte hartze prozesuaren **emaitza** aurrekontuetako prozedura ofizialean **txertatu**, eta emaitza **jakin araziko** da.

Prozesuaren baldintzak

Hauek dira partaidetza-prozesuen **printzipio gidariak**:

1. Ahalik eta **aniztasun** eta **dibertsitate** handiena bilatzeaz arduratuko da, jorratu beharreko gaiaren ezaugarrien arabera, eta hura kudeatzeko laguntza-bitartekoak ezarriko dira.
2. Beharrezkoak diren **laguntza-bitartekoak** ezarriko dira prozesuan banakako edo gizarteko inguruabarrak direla-eta **zailtasun bereziak dituzten pertsonen** laguntzeko, hala nola sexua, adina, desgaitasuna edo jatorria, eragindako lurralde-eremuaren gizarte- eta biztanleria-osaera kontuan hartuta.
3. Hizkuntzaren eta iruditeriaren **erabilera ez-sexista** egitea prozesu osoan.
4. Prozesuen **kalitate demokratikoa** eta **eraginkortasun-maila** neurtzeko, lortutako emaitzez gain, prozesuetarako sarbidea eta bertaratutako pertsona guztien benetako parte-hartzea ahalbidetuko duten neurriak hartuko dira.
5. Horretarako, **aldakortasun** zabalena hartuko da kontuan, bai komunikazio-motei dagokienez, bai herritarrengana iristeko eta udalerrian dagoen ahots-aniztasuna ikusarazteko hautatutako bideei dagokienez.
6. Gainera, parte-hartzaileen **horizontaltasuna, errespetua, adierazpen-askatasuna eta tratu-berdintasuna** erraztuko duten metodologiak txertatuko dira, eta herritarrek parte hartzeko espazio ireki eta egokia garatuko da. Horregatik, prozesu bakoitzak bere berezitasunei erantzuten dieten irizpideak eta estrategiak zehaztuko ditu.



TOLOSAKO
UDALA

7. **Emakumeek eta gizonen berdintasunaren alde** parte hartzen dutela bermatzeko, Tolosako Udalak, parte-hartze prozesuak garatzen diren bitartean, herritarren eskura jarriko ditu parte-hartzea bizikidetzak eta zaintza-betebeharrekin bateratzeko beharrezkoak diren zerbitzuak.
8. **Genero-adierazleak** eta datuak bereizita jaso eta aztertuko dira, espazio bakoitzaren agertokia genero-ikuspegitik ezagutzeko.

Orain arteko faseak eta hurrengo urratsak

1. Lehenengo hausnarteka Udal gobernuarekin
2. Foku-ideien lanketa teknikariekin (2021-5-25)
3. Foku-ideiak oposizioko taldeekin alderatzea (2021-6-17)
4. Foku-ideien lanketa herritarrekin (2021-6-22)
5. Herritarren ekarpenak online (2021-6-22tik 2021-7-22 bitarte)
6. Foku-ideien inguruko txostena (2021-9-30)
7. Txostenaren lanketa udal gobernuarekin eta teknikariekin (Urriak 15 eta 22an, 9:30-11:30 bitarte, Kultur Etxeko Topagunean)
8. Herritarrekin saio irekia (Azaroak 3, 18:00etatik 20:00tara, Kultur Etxeko Areto Nagusian)
9. Egitasmo proposamenen txosten bateratua (Azaroak 8)
10. Proposamenak aurrekontuen prozedura ofizialean txertatzea
11. Komunikazioa herritarrei

Foku-ideien inguruko txostena

Txosten honen helburua abiapuntuko udal gobernuaren foku-ideien baitan udal teknikariek eta herritarrek egindako ekarpenak aztertzea eta hauek Tolosatzen Plangintza Estrategikoaren baitan kokatzea da.

Txosten honen bitartez, orain arteko prozesuan zehar azaldutako ideia nagusiak zeintzuk diren adierazi eta prozesuan azpimarratu diren gabeziak edota hutsuneak ere identifikatu nahi dira.

Txosten hau teknikariek eta herritarrek egindako ekarpen guztiak jasotzen dituen txosten zabalako batean eta herritarrekin burututako saioan entzundako ekarpenetetan oinarrituta dago.

Beraz, txosten honekin batera ekarpen guztiak jasotzen dituen txostena banatuko da, ikuspegi osoa izateko eta sail bakoitzak, bere arduradun politikoarekin batera, 2022 urteari begirako egitasmo posibleak eta balizko hutsuneak eta behar desberdinak identifikatu ahal dituzan.



TOLOSAKO
UDALA

Tolosa, pertsona ardatz duen herria (TO 2017/27)

IKUSPEGIA: Tolosa, tolosar guztion ongizatea eta osasuna bermatzen duen herria da, arlo guztietan kohesionatua dagoena eta bizimodu osasungarria eta bizi-kalitatea bultzatzen dituen, baita bizimodu aktiboa eta parte-hartzailea ere, balore guzti hauek balioan jartzen dituena.

ERRONKA: Baloreetan oinarritutako gizarte konprometitua eta inklusiboa sustatzea.

1. Fokoa: Tolosarren gizarte babesa eta ongizatea bermatzea :

- **Gizarte politika eraginkorrak bultzatuz**
- **Gizarte zerbitzuak indartuz eta hobetuz**

Kontuan hartu beharrekoak:

- Elkar-zaintzaK (jasotzailea eta emailea)
- Zerbitzu eskubideak guztiontzat (jasotzaile eta zaintzaile perfil desberdinak; inklusioa, generoa, pobrezia, etorkinak, duina.... Formakuntza)
- Elkarlana (elkartegintza, boluntariotza)
- Belaunaldiartekotasuna
- Bizitza etapa desberdinak, behar desberdinak:
 - Prebentzioa
 - Informazioa (Gardentasuna)
 - Formazioa (Tolosatzen Eskola Irekia-TEI)
 - Praktika komunitarioak (auzoa)

Ekarpenak (Beharrak, gabeziak, desirak)

- Osasun emozionala zaindu eta landu
- Bizi ohitura osasuntsuak sustatu
- Bizi etapa desberdinak
 - Nerabe eta gazteak
 - Azken etapa

Proiektuak:

- Solidaridup Tolosa (Sensibilización y Educación para la Transformación Social-ONG Zabalketa)
- Hozkailu solidarioak



TOLOSAKO
UDALA

Tolosa, pertsona ardatz duen herria (TO 2017/27)

IKUSPEGIA: Tolosa, tolosar guztion ongizatea eta osasuna bermatzen duen herria da, arlo guztietan kohesionatua dagoena eta bizimodu osasungarria eta bizi-kalitatea bultzatzen dituen, baita bizimodu aktiboa eta parte-hartzailea ere, balore guzti hauek balioan jartzen dituen.

ERRONKA: Baloreetan oinarritutako gizarte konprometitua eta inklusiboa sustatzea.

2. Fokoa: Udala garai berrietara egokitu: kalitatezko zerbitzuak eskaini, gobernantza eredu berrietan sakondu.

- **Gardentasun ataria.**
- **ODS parametroen lanketa.**
- **2027 plan estrategikoaren eguneraketa.**

Kontuan hartu beharrekoak:

- Elkartegintzaren arreta zerbitzua eratzuz, administrazioarekiko distantzia murrizteko.
- Gardentasuna, ODS, 2017-2027 Tolosaten plan estrategikoa eguneratu: Tolosako errealitatera lurreratu behar dira.

Ekarpenak (Beharrak, gabeziak, desirak):

- Boluntariora sustatu
- GJH/ODSak zeharkakotasunez txertatu egitasmo desberdinetan eta ezagutarazi (sozializatu).
- Herritarrak ahaldundu
- Informazioaren kudeaketaren eta hartu-emanen kalitatea:
 - Kexa eta iradokizunei erantzun azkarra
 - Gardentasuna
 - Tramitazioa arindu (burokrazia)
 - Arrakala digitala/teknologikoa. Bitarteko egokiak

Proiektuak:

- Elkartegintza/TEI formakuntza: nola sortu elkarte bat, nola dinamizatu, nola sortu proiektu bat.
- Elkartegintza: akonpainamendu zerbitzua
- Arrakala digitala/TEI: aurre egiteko formakuntza KZ Gunean.



TOLOSAKO
UDALA

Tolosa, herri hezitzailea eta kultur anitza (TO 2017/27)

IKUSPEGIA: Tolosa aniztasunean eraikitako herri bizia, jakintsua eta ekintzailea da. Ingurua eta bere burua ongi ezagutzen duen kultur anitzeko herria, euskara ardatz izanik guztiok gustura eta eroso sentitzea ahalbidetzen duena.

ERRONKA: Herri hezitzailea eta irekia egitea, euskara mailan arnagunea, kalea herritarren topagunea bihurtuz.

3. Fokoa: Covid osteko agertokia. Tolosa biziberritzen jarraitzea, Tolosak berezkoa duen jarduera berreskuratzeko. Herri bizia helburu.

- **Kultur eta kirol eskaintzaren eguneraketa, gazteak ere kontuan izanik.**
- **Nazioarteko ekimenak, kultur jarduerak, kirol arloko jarduerak**

Kontuan hartu beharrekoak:

- Eskaintza anitza, bai publiko jasotzaileari dagokionez, bai eskaintzari dagokionez ere
- Adinartekotasuna
- Esperientzia aintzat hartu eta elkarte/eragile desberdinen elkarlana sustatu.
- Kontuan hartu haur, nerabe eta gazteen diagnostikoaren emaitza, udal egitasmoen inguruan hezkuntza komunitatearekin egiten ari den diagnostikoa, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana eta Berdintasun Planaren baitako diagnostikoa eta ekintzak.
- Kirola baino kontzeptu zabalagoa erabili beharko litzateke, osasuna edota bizi eredu osasuntsuarekin lotuagoa.
- Kalea, espazio publikoa aisi-kontsumo gune, ez dugu zertan kultura-kirola eraikinetan bakarrik jaso behar.
- Eragileen datu basea.
- Udal Ekipamendu planarekin uztartu behar da.
- Bertako produktoak babestu eta sustatu.
- Zahurgarritasun programak landu behar dira, kolektiboak ekimen desberdinetan txertatuz.

Ekarpenak (Beharrak, gabeziak, desirak):

- Zeharkakotasuna (adinartekotasuna, berdintasuna, inklusioa, euskera, haur, nerabe eta gazteak, aniztasuna)
- Bizi ohitura osasuntsuak
- Espazio publikoaren erabilera
- Ko-sorkuntza publiko-soziala
- Eskaintza: kuantitatiboaz gain, kualitatiboa
- Euskal kultura eta kultura anitzen elkarbizitza
- Garapen pertsonalaren zerbitzura



TOLOSAKO
UDALA

Proiektuak:

- Giza liburutegia, ezagutzen artxiboa, esperientzi bankua
- Formato txikiko kale ekitaldiak, ikuskizunak, txapelketak (nazioartekoa?)
- Hub kulturala/musikala (ekonomia kreatiboa, laborategiak...sinergiak) (Nazioarteko trukeak, proiektzioarekin?) (Bailarako ikuspegia)
- Dirulaguntza lerro berriak?

Ingurumenaren babesa eta udalerriaren nortasuna mantenduko duen herri garapen iraunkor eredugarria (TO 2017/27)

IKUSPEGIA: Tolosa herri iraunkor eredugarria da, hiri eredu alternatibo baterako transizioan, eta orekatua lurralde antolaketaren ikuspegitik, non espazio publikoa elkargune eta bizileku den, kultura, aisia nahiz kirol egitasmoen plaza.

ERRONKA: Garapen iraunkorrean herri aintzindaria izatea, klima aldaketaren aurrean konpromiso sendoa hartuko duena.

4. Fokoa: Pertsonak erdigunean kokatzen dituen Tolosa.

- **Atsegina, zaindua, beharrezko azpiegiturekin, etorkizuneko oinarriak landuz.**

Kontuan hartu beharrekoak:

- Landalurra: Bedaion egin bezala, epe luzerako begiradarekin, inbertsio lerroak identifikatu auzotarren partehartzearekin (Ikuspegi estrategikoa, auzo eskala?).
- Espazio publikoan ere kontuan hartuz euskera, inklusioa, pobrezia, etorkinak, emakumeak, belaunaldiartekotasuna (zeharkakotasuna).

Ekarpenak (Beharrak, gabeziak, desirak):

- Irisgarritasuna bermatu hiri osoan.
- Bizi ohitura osasuntsuekin bat, atsedeen herria, naturarekin bat.
- Landa eremu bizia. Zerbitzu bereziak.
- Zibismoa. Saentsibilizazio kanpainak (Gazteei zuzenduak?)



TOLOSAKO
UDALA

Proiektuak:

- Ingurumen etxea (ingurumena, hondakinak, mugikortasun aktiboa...)
- Erdigunea oinezkoa, irisgarria
- Baso eremuak handitu
- Herrikide 0-12 jolastokia herrian integratu
- Autobusa auzo guztietara
- Espazio irekien erabilera areagotu, bizi ohitura osasuntsuak sustatzearekin bat

Ingurumenaren babesa eta udalerriaren nortasuna mantenduko duen herri garapen iraunkor eredugarria (TO 2017/27)

IKUSPEGIA: Tolosa herri iraunkor eredugarria da, hiri eredu alternatibo baterako transizioan, eta orekatua lurralde antolaketaren ikuspegitik, non espazio publikoa elkargune eta bizileku den, kultura, aisia nahiz kirol egitasmoen plaza.

ERRONKA: Garapen iraunkorrean herri aintzindaria izatea, klima aldaketaren aurrean konpromiso sendoa hartuko duena.

5. Fokoa: Ingurumenaren zaintza eta jasangarritasuna, aldaketa klimatikoari aurre egiteko.

- **Mugikortasun eredu jasangarriak.**
- **Naturarekiko errespetua: kanpainak eta ekimenak.**

Kontuan hartu beharrekoak: _____

Ekarpenak (Beharrak, gabeziak, desirak):

- Mugikortasun aktiboa eta horretarako baliabide egokiak.
- Begirada “glokala”. Tolosako neurrirako helburuak.
- Eguzki plakak.
- Kontsumo arduratsua.
- Landare inbaditzaileak kendu.

Proiektuak:

- Galdera: zein da Tolosan sustatu asmo den garapen iraunkorrerako eredua?
- Klima 2050 Planeko ekintzak eta jarduerak
- Kontsumo ereduari buruzko plana?
- Mugikortasun planaren exekuzioa?



TOLOSAKO
UDALA

Tolosako garapen ekonomikoa sustatu hiri ekonomia eta lehen sektorea oinarritzat hartuz (TO 2017/27)

IKUSPEGIA: Tolosak saretutako ekonomia aktiboa du, berezkoak dituen baliabideak indartuz eta errespetatuz, egitasmo berriei bultzada ematen diena; sektore desberdinen arteko elkarlanaren bitartez, garapen ekonomiko iraunkorra bermatu eta eskualdeko mugetarik haratago zabalduaz.

ERRONKA: Garapen ekonomiko eredu orekatua eta duina bultzatzea, pertsona erdigunean jarriz.

6. Fokoa: Hiri ekonomia indarberitzen eta Tolosako garapen ekonomikoa sustatzen jarraitu.

- **Eragile ekonomikoekin elkarlanean, estrategikoak diren proiektuak garatzea etorkizuneko erronkei aurre egiteko.**
- **Merkataritza, ostalaritza, azoka, ekintzailtza, industria, turismoa...**

Kontuan hartu beharrekoak: _____

Ekarpenak (Beharrak, gabeziak, desirak):

- Baserria eta baserritarrak. Ezagutu, babestu, balorean jarri.
- Etorkizuna Eraikiz egitasmoaren baitan dauden proposamenak Tolosan aplikatu.
- Tolosako agente desberdinen arteko aliantzak eta elkarlana.
- Hiri ekonomia indarberitu.
- Tolosa ezagutarazi. Gazte nahiz helduentzako jarduera erakargarriak.
- Km0 (bertakoa/tokikoa)-ekonomia zirkularra
- Azokak indartu (nazioartekoa?)
- Gazteen talentua balioan jarri, ideia berritzaileak babestu

Proiektuak:

- Ekintzailtza 1. sektorean ere?
- Hiri ekonomia eta 1. sektorea batuko dituen proiektun estrategikorik?
- Garapen ereduari buruzko gizarte eztabaida bat behar da?
- Nola uztartzen dira Tolosan garapen ekonomikoa eta garapen jasangarria (klima plana)?
- Komertzio jasangarriak. Laguntza lerro desberdinak.

Tolosa, 2021eko irailaren 30a.

Garikoitz Lekuona Izeta
Komunitate eta Gobernantza saileko arduraduna

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

Aurrekontuak 2022 txosten teknikoa